

2020ko ABUZTUAREN 18ko BILKURA BEREZIA

LEHEN DEIALDIA

Artzibarko udaletxean, bi mila eta hogeiko abuztuaren hemezortziko hemeretzietan, Artzibarko Udala bildu zen bilkura berezia egiteko, legeak agindu moduan eta lehen deialdian, Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendua eta Arautegi Juridikoaren Arautegiaren 38. artikulua betetzeko.

MAHAIBURUA: Alkate-Udalburua CARLOS OROZ TORREA

BERTARATUAK: Zinegotzi hauek:

Maria Isabel Cañada Zorrilla
Juan Jose Echavarren Salvador
Francisco Javier Erro Ramirez
Garoa Gartzandia Agirrezabala
Carlos Iriarte Iraceburu
Clara Ruiz de Gauna Borreguero

Idazkaria: Joana Estanga Urroz

Alkate-udalburuak bilkurari hasiera eman ondoren gai zerrendako gaiei ekin zaie, hona hemen:

1.- Klima eta Energiarentzako Alkatetzen Itunarekin bat egitea

Klima eta Energiarentzako Alkateen Itunarekin bat egitea proposatu da.

Ekimena europarra da eta xedea du tokiko gobernuek bat egin dezaten berotegi-efektua eragiten duten gasak murrizteko helburuekin eta ikuspuntu komuna barnera dezaten aldaketa klimatikoa eta txirotasun energetikoa arintzeko eta egokitzeko.

“Guk, Itun hau sinatu dugun alkateok, etorkizun iraunkorraren ikuspegia partekatzen dugu, gure udalerraren tamaina eta munduko mapan duen kokapena edozein izanik ere. Ikuspegi komun horrek gure ekintzak bideratzen ditu elkarrekin konektatutako erronka hauei aurre egiteko orduan: klima-aldaketa arintzea, egokitzea eta energia jasangarria. Elkarrekin, prest gaude neurri zehatzak eta epe luzekoak hartzeko, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik ingurune egonkorra bermatzeko egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat. Gure erantzukizun kolektiboak eskatzen du lurralde jasangarriagoak, erakargarriagoak, bizigarriagoak, klima-aldaketari aurre egiten diotenak eta energetikoki eraginkorrak direnak eraikitzea.(...)”

Konpromiso ofizialaren dokumentua irakurri da, hona hemen haren laburpena:

- Hartutako konpromisoa da, lehenik, udalerrian CO2 gasaren isuriak, gutxienez, %40 murriztea 2030. urterako (baita, baliteke, berotegi-efektua duten beste gas batzuen ere). Horretarako tresnak izanen dira energia eraginkortasuna areagotzea eta energia iturri berriztagarriak gehiago erabiltzea.
- Bigarrenik, erresilientzia handitzea, klima aldaketaren ondorioetara egokitzuz.

Aho batez erabaki da:

LEHENIK: Klimaren eta energiaren aldeko konpromisoa onartzea eta ekimenaren garapenean inplikatzeko arrakastaz amaitzeko, lantaldeetan parte hartuz eta eskuragarri dagoen informazioa emanaz.

BIGARREN: Klimaren eta energiaren aldeko konpromisoa onartzea eta ekimenaren garapenean inplikatzeko arrakastaz amaitzeko, lantaldeetan parte hartuz eta eskuragarri dagoen informazioa emanaz.

2. Explora Navarra sarearekin bat egitea:

Explora Navarra sarearekin bat egitea proposatu da: Iruñean sortutako elkarteak da, eta laguntza tekniko, zeharkakoa eta eskumen anitzekoa emateko tresna praktikoa izan nahi du, Nafarroako natura-guneen, gune berezien eta ibilbideen kudeaketa errazteko eta haien balioak modu koherentean eta kohesionatuan hedatzen laguntzeko, jasangarritasunaren esparruan (ingurumena, gizartea eta ekonomia).

Elkartearen estatutu arautzaileak irakurri dira, eta bat datoz elkartearen xedearekin eta elkarteak sustatutako helburu eta jarduerekin. Aho batez erabaki da:

LEHENIK: Red Explora Navarra elkarteko Zuzendaritza Batzordeari eskatzea erakundearen Elkartekideen Erregistroan bazkide gisa alta ematea.

BIGARREN: Elkarteak arautzen duten estatutuen edukia ezagutzen dela adieraztea eta estatutu horiek bazkideei ematen dizkieten eskubideak eta betebeharrak errespetatzeko konpromisoa hartzea.

3. Langabetuen kontratazioa:

Ikusirik 2020ko uztailaren 28ko osoko bilkuran bi langabe kontratatzeke memoria onartu zela, laneratzeko zailtasun bereziak dituzten langabeak kontratatzeke laguntzen deialdiaren bidez (1878E/2020 Ebazpena, ekainaren 19koa, Nafar Lansare - Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearena).

Agoizko Enplegu Bulegoan zerrenda eskatu da eta baldintzak betetzen dituen pertsona bakarra dagoenez.

Aho batez erabaki da:

LEHENIK: Pertsona bat kontratatzeko memoria bera onartzea, langabeak kontratatzeko ohiko deialdiaren arabera (251/2018 Ebazpena, martxoaren 7koa, Nafar Lansare - Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearena).

BIGARREN: Agoizko enplegu-agentziari zerrenda eskatzea, lehentasunez Artzibar bailarako langabetu bat kontratatzeko izapideari ekiteko.

HIRUGARREN: Ezarritako epearen barnean Nafarroako Enplegu Zerbitzuari dirulaguntza eskatzea.

4º.- Eskaerak eta galderak.

Ez dago

Eta gai gehiagorik ez zegoenez alkateak bilkura bukatutzat eman zuen hogeiak direlarik, eta nik akta egin dut eta bertan zeudenek sinatu dute eta nik, idazkaria naizen aldetik, ziurtatu dut.